

PASARTE HAUTATUA

Shuntaro Tanikawa

Bi bilioi argi-urte bakardade

Gizakiak mundu txiki honetan lo egiten, esnatzen, lan egiten dabilza eta batzuetan lagunak nahi izaten dituzte Martitzen.

Ez dut arrastorik ere zertan ote dabilzan martiztarrak beren mundu txikian (neriri-tzen edo kiruru-tzen edo harara-tzen).

Baina batzuetan lagunak nahi izaten dituzte Lurrean. Zalantzarik ez horretaz.

Grabitazio unibertsa elkarri tiraka ari diren bakardadeen energia da.

Unibertsoa deformatuta dagoenez, elkarren bila baikabiltza denok.

Unibertsoak zabaltzen jarraitzen duenez, ezeroso baikaude denok.

Bi milioi argi-urteko bakardadearen zirrarez, egin dut bat-batean doministiku.

rren errotondara/ kamioi bat,/ kart bat/ motozikleta bat/ eta, denen ostean azken,/ nire zilar koloreko autobus trauskila».

Maiz, txanpon beraren bi alde baino ez dira umorea eta seriotasuna Tanikawaren kasuan.

Ugaritasuna eta isiltasuna

18 urterekin argitaratu zituen bere lehen poemak literatur aldizkarietan, eta 22 urterekin eman zuen argitara bere lehen poema bilduma: *Bi bilioi argi-urte bakardade*. Eta beste bat heldu zen gero, eta beste bat, eta beste bat, eta, hala, Elliot itzultzaileak kontatzen duenez, Japoniako liburu denda nagusietako poesia atala ia osorik gobernatu arte. Ironia puntu bat ere badu horregatik itzultzailearen galderak *Selected poems* liburuko hitzaurrean. «Gehiegi al da urteko poema liburu bat argitaratzea? Liburu on bat urteko?».

Eta, halere, isiltasunaz mintzo da poeta titulurik gabeko poema batean: «Agian erretrospektiban/ topatuko ditut hitzak;/ baina oraingo, hemen nago-/ hori da dena- soilik hemen».

Sinbolismoaren mugak

Peru Iparragirre

Egun batzuk igaro ditut Luis Garderen (Iruñea, 1961) *Barbaroak baratzean* (Balea zuria, 2017) poema liburu berria ia une oro aldean, zabaltzeko behar nuen adorea noiz bilduko. Poesiari berriz heltzeko momentua etengabe atzeratuz apalean pilatzen ari zaizkit poema liburuak azkenaldian, irakurtzeko. Balea zuriari ihes egiten ez uzteko intentzioz, begietara eta hatzetara atsegina den kolaz lotutako paper inprimatu mardula eskuetan hartu dut azkenean.

Hitzei erreparatzen hasita, laster galtzen da orri goxoen lehen atsegina. *Harresian itzalak* lehen atalean barneratu ahala, hesi eta murruekin egingo du topo irakurleak, hesiok zeharkatzeko saialdia egiten ari direnen irudierekin, minarekin. Sinboloz jositako hitzek adierazten dutena ez da asko aldatzen poema batetik

bestera, baina orriak pasatu ahala badira gogoan argituz doazen inpresio batzuk, iruditeria errepikakor horretan zehaztuz doan paisaia latz bat. Hirugarren pertsonaz esaten diren baina *noma-da* gisa ez bada ia izendatzen ez diren beste horiek ikusten dituzte poetak, horma zeharkatzeko



'Barbaroak baratzean'

Idazlea: Luis Garde.
Argitaletxea: Balea zuria.

saiaikeran, hesietako xaflek zaurituta haien gorputzak.

Bigarren atalean ageri da gehien poeta, hitzen balioaz galderak eginez, munduaren eta norberaren arteko harremanari eta idazteari buruzko gogoetan. Narratiboan daitezkeen aleak ere hemen daude, beste bi ataletako iruditeriaren kortsetik askatzen direnak. Badaude lekuz kanpo daudela diruditen poema bakan batzuk, *Beldurraren balizko genealogiak* izenburuko poemak, kasurako, diotena liburuan ulertzeko makuluak faltan izan dituzte behintzat. Atal horretan narrazio labur batzuk ere ageri zaizkigu, formaz ezberdin bada ere gaiari heltzen diotenak nolabait. *Azken ikuskizuna* izenekoak da salbuespena. Narrazio hori, kutsu ia surrealista, bere horretan literarioki interesgarria izan daitezkeen arren, liburuaren barne-logikan kokatzeko zaila iruditu zait.

Hirugarren eta azken atalean, fokua berriz pasatzen da besteen gainera, haien etxeetatik ihesean lurrak eta urak zeharkatzen dituztenengana. Lehen atalean murruekin baldin baziren, zeharkaldiak edo bidaiak dira atal honetako poemetan kontatzen direnak, ihesean doazen gorputzen

odiseak. Karga sinboliko handiko poemak dira horiek ere, baina aurreko ataleko hausnarketaren hariari nolabait helduz poeta gehiago ageri dela dirudi, amaiera aldera batez ere, azken poeman kasurako (liburua narrazio labur batek ixten du). Azken aha-paldian zera dio, liburuaren es- truktura eta funtsa laburtuz ia: «[...] baina horrexegatik gelditu naiz hemen, / metafora zalantzati- en leihio irekiaren ondoan esna/ eta begiak erreta paperari begira:/ gaur paisaia batek, bik agian, / uraren eta burdinaren ziurtasun- ez begiratu didatelako».

Sinbolismoak inpresioak sor- tzeke balio duela esango nuke, pintzelkada sakon baina aski lau- soz paisaia bat margotzeko. Pai- saiaren atzean, edo xehetasun- tan dagoena azalertzeko, ordea, gako nahikorik ematen ez duela- koan nago. Eraikitzen ditugun harresiez hausnartzeko bide ematen dute poemok, gure Edengo baratze propioak barba- rotzat ditugunengandik ustez de- fendatzearen joeraz gogoetatze- ko, Gardek bigarren atalean adi- tzeraz ematen duen eran, beharbada, gertakari laggarriak hutsal gisa agerrarazi eta gogoe- tak azalean geratzeko arriskuare- kin.

Lady Lindaren desmasiak



Imanol Mercero

Eskularru beltzak bilduma izateko bokazioarekin jaiotako endredo-literatura da.

Orain arte bi ale argitaratu dira. Bakoitzak 150 bat orrialde ditu, hainbat kapitulutan banatuta dago, eta zortzi ilustrazio dauzka.

Pertsonaia nagusiek 16 urte inguru dituzte, baina irakurle gazteagoentzako bilduma dirudi, ikusirik ekintzen sinpletasuna, pertsonaien urritasuna eta hausnarketaren xalotasuna.

Lehenengo liburuaren eta bigarren liburuaren artean ez dago jauzi edota aldaketarik. Alderantziz, lehen liburuaren azken

ekintza mezu baten igorpena da, eta bigarrenaren hasiera, mezu horren irakurketa.

Protagonistak hiruak bildutako bi talde dira. Talde bakoitzak lider bat du, eta elkarren antitesia dira. Batetik, Beire eta bere taldea dago. Lete segaila eta Kar *teknofilo* Beireren lagun minak dira, eta eskola hankazpian darabilen



'Eskularru beltzak'

Idazlea: Imanol Mercero.
Ilustratzailea: Joseba Larratxe Josevisky. Argitaletxea: Elkar.

Sua taldea osatzen dute. Horiek dira *gaiztoak*.

Bestetik, Baba dago. Otsu ba- kartiaren arketipoa jokatzen du Babak, zintzoa da, eta bertute moralak zaintzen ditu. Leire tote- lak eta Beyonce gizenak Babarekin hirukotea osatzen dute, eta Sua taldearen antitesia dira. Ho- riek dira *zintzoak*.

Izen eta guzti pertsonaia gutxi batzuk gehiago agertzen dira: Andrea Beireren beste etsai bat, *Beruna JR* boxeo gimnasio baten jabea eta Babaren lagun mina, eta *Bufalo Kill*, Babaren aita boxeolari-ohia eta mozkorra.

Barkatuko didazu *total*, *gizen* edota *mozkor* bezalakoak erabili badituzte. Propio egin dut. Izan ere, bilduma honen hutssegite handiena, nire iritiz, pertsonaia ba- koitzari izendatutako ezaugarria narrazioa behin eta berriz errepikatzea da, oso pisua egiten dena, eta, okerrera, pertsonaiei garatzeko aukera kentzen diena.

Egia esan, narrazioa bere la- nean *baldarra* da: denari buruz hitz egiten du, baina nabarmena da askotan pertsonaiek ezin du- tela berak adierazi bezala pentsa- tu edota sentitu, eta gertakari- en jatorri edota ondorioa ez dela be-

rak dioena. Ezinezkoa delako, esaterako, pertsonaia guztiak berdin arazoitzea, eta gertakari- en aurrean berdin jokatzea, nortasunik ez balute bezala. Na- hasgarria delako narrazioaileak esatea Babak «izaera isil baina ir- moa» duela behin eta berriz, egoera guztietan bera izanik isil- du gabe zirta borobil, sakon eta pertinateak botatzen dituen. Eta horrela pertsonaia guztiak. Agian pertsonaiei hitz egiten utziko balie, agian pertsonaiek sentitzen dutena esan, eta horren arabera jokatuko balute...

Eta klizeez ari garela, harrigarr- ria egiten da endredo guztien jat- torria bat eta bera izatea: elkarri ez esatea garrantzizkoa den hori- xe... ba ez, sekulako korapiloa hutsaren inguruan. Eta pena da, hitz egiten utziko balitzate zer esan asko luketela ematen duela- ko.

Agian funtzionatuko du, *ame- rikanuek* edo batek daki nork ezarritako formula-literaturaren jokamoldea izango da, baina niri ez zait abiapuntu ona iruditzen pertsonaiekin ez sinistea, eta irakur- leak, duen adina duela, errespetu gehixeago merezi du.